

in: Askoren artean (1988): *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara Biltzarra. I. Atala: Hizkuntz deskribapena. I. Alea / II Congreso Mundial Vasco. Congreso de la Lengua Vasca. Area I: Descripción de la lengua. Tomo I*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 9-21.

Euskaltzaindia eta euskararen normalkuntza

LUIS VILLASANTE

Euskaltzaindia

Nere asmoa hitzaldi honetan zera da: urte hauetan Euskaltzaindiak egin duen lana eta oraintxe ere esku artean duena pixka bat gaingiroki eta lerro nagusitan azaltzea. Gai bakoitzari buruz Euskaltzaindiak emandako agiriak non dauden oharretan adierazten da.

Egia da gertaerok gugandik hurbilegi daudela oraindik, eta urruntasunak soilki eman dezakeen ikuspegi berezi hori falta zaigula. Halaz guztiz, euskararen iragana nolakoa izan den kontutan hartuz, huts egiteko beldur handirik gabe esan dezakegu hizkuntza honek gure egunotan eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean, lehen aldiz hartu dituela bere normalkuntzarako abelera batzuk ustez ondoriotsu izango direnak. Honekin ez dugu esan nahi abelera horiek hartu hutsen boterez dena konpondurik dela, hori ez. Hizkuntza bat aitzingibel askotako arazoa da; osasun onez biziko bada, esparru askori eman beharko zaio kontu; baina besteak beste direla, bada bat ezin utzizkoa, ezin bestekoa, hots, hizkuntza beraren normalkuntza, eta beroni gure egunotan lehenbiziko aldiz aurpegi eman zaio.

Euskararen *normalkuntza* hemen Euskaltzaindiari dagokion aldetik hartzen dugula esan beharrik ez dago. Normalkuntzak beste zeregin batzuk ere eskatzen ditu, baina horiek Euskaltzaindiaren ahalbideetatik kanpo daude. Normalkuntza esatean, guk zer esan nahi dugu, bada? Hizkuntza bat, gaurko gizartean, komunikabide edo tresna egoki izan dadin, noraezeko diren dohainez jantzirik uztea: horra. Eta horretarako, hain zuzen, urte hauetan Euskaltzaindiaren gidaritzapean eman diren urratsak ez dira hutsaren parekoak izan. Arazoa, nahi baduzue, ez dago oraindik bururatua, baina, bai, neurri handi batean behintzat, bideratua. Hola uste dugu.

1. Euskararen normalkuntzarako eman diren urratsak

1918-1919. urteetan sortzen da Euskaltzaindia. Euskal Herriko lau Diputazioek sortu zuten. Erakunde publiko bat da, berariaz eta hartarako, hots, euskara zaintzeko eta gidatzeko sortua. Herri-agintariengandik hartutako mandatuz eta autoritatez dotatua da, euskarari buruzko arau gidariak emateko, alegia.

Ez da, bada, edozein talde pribatu bat bere kontutik ari dena. Ez da alderdi politiko baten adarra. Herri batek, hots, Euskal Herriak, bere agintarien bidez jarritako instituzio publiko bat da, eta hartarako, hots, euskararen arazoak nolabait gidatzeko, sortua.

Eta hain zuzen, Francoren errejimenean eta bai geroago ere, zenbaitzuek Euskaltzaindiaren legezko nortasuna auzipean jartzen zutelako, Euskaltzaindiak erregerengana jo zuen eta bai guztizko ezagutza eta onarpena lortu ere (1). Eta nola Euskal Herria Frantziako Estatuan ere bizi baita, gaur egunean han ere ahaleginak egiten ari da Euskaltzaindia, ezagutua eta onartua

izan dadin. Uste dugu hori dela bidea Instituzio honek zangoak lurrean dituela, euskararen alde lan egin dezan.

Gero, jakina, Autonomi Estatutuan ere ezagutua eta onartua izan da. Eta gaurko egoeran lehen baino baliakizun handiagoak dituela bere helburuen alde lan egiteko, esan beharrik ez dago.

Ez zen bat ere erraza Euskaltzaindiari leporatu zitzaion egitekoa. Gogoratu besterik ez dago zer moduzkoa zen herri honen eta hizkuntza honen egoera, euskal estudioen egoera, etab. Hala ere, bazen ordurako hizkuntz-kontzientziaren gar piska bat, bazen euskal literaturaren hasiera bat, nahiz eta berandukoa, urria eta euskalkietan banatua egon, eta euskarari buruzko ikerketek ere lehen zituak emanak zituzten jadanik. Euskarak, ordea, ez zuen sarrerarik eskolan.

1) Nahiz eta bere egitez eta izatez mintzaira ezpainetan erabiltzeko egina izan, gaur behar-beharrezko du hizkuntza idatziaren azpi egitura hori. Eta Euskaltzaindia hortik hasi zen. Bere sortze-egunetik lehen-lehenik erabaki zuen gauza euskal ortografiaren batasuna izan zen. Bazen premia, zeren eta idazleen artean hiruzpalau sistema edo gehiago baitziren.

Hortik hasi beharra zegoen eta hortik hasi zen, bada, Euskaltzaindia. Mugaz hemengo aldean aski erraz onartu zen Euskaltzaindiak erabaki eta legeztatutako ortografi sistema; mugaz handiko aldean, berriz, letren gaineko gandorrek eta "ixa" letraren erabilpenak mukertasuna aurkitu zuten.

Horretaz gainera edo landara, bazegoen bikoiztasun bat aspalditik zetorrena: Iparraldekoek hats-beherapena "H" bidez adierazten zuten eta Hegoaldekoek hats-beherapenik ez zutelako, ez zuten "H" letra hori bat ere erabiltzen. Egia esan, "H" erabiltzean, Iparraldekoek ez zuten Euskaltzaindiaren kontra makurrik egiten. Euskaltzaindiak euskaraz idazteko zein letra erabili behar diren erabaki zuenean, han sartu zuen "H" ere (2). Bazekiten euskaltzainek Iparraldeko euskalkiek beharrezkotzat jotzen zutela letra hori eta agian gehiegizko atxikimendua ziotela —Hegoaldekoek, aldiz, neurritz kanpoko ezin ikusia zioten bezalaxe—, eta orduko z gauzak horrela gelditu ziren.

Baina, jakina, auzi honek goizago edo beranduago leher egin behar zuen. Hizkuntza beraren barnean nola onart hitz bat bera batzuk "H"rekin eta beste batzuk "H" gabe idaztea? Eta hori ez zen gertatzen hitz guti batzuekin, samalda handi batekin baizik. Egia da egoera hau normalizat hartu dela azken mendeotan, eta euskalkien eta euskaldunen arteko isolamenduagatik ez zela deus pasatzen. Baina hizkuntza idatziaren batasuna euskara osoaren mailan egin nahi baldin bazen, hau zen aurrengo problema, zeren eta hizkuntza normalizatuaren lehen eskakizun edo postulatua hauxe baita, hots, ortografia bateratua izatea.

Jakina denez, Iparralde eta Hegoaldekoen artean ortografi kontuan zeuden desakordioak Arantzazun 1968. urtean egindako Kongreso famatu haren inguruan gainditu ziren. Ez burruka eta eztabaida gabe, eta ez supituki ere, baina bai aski aguro eta erraz, halere. Iparraldekoek onartu zuten "ixa" letra "Ch" multzoaren ordeztasuna; Hegoaldekoek, berriz, onartu zuten gandordun letrak baztertea eta berorien ordeztasuna bikoitzak idaztea. Gero, berriz, 1978ko Kongresoaren ondoren kontsonante busti-palatalen grafiaz hartutako erabakiarekin (3), asko gutitu da kontsonante bikoitz horien erabil beharra. Orduan, gero esango dugunez, erabaki zen bustidurak ez zitezela hizkuntza idatzian adieraz esanahiaren aldaketa berekin dakartenean baizik; hau zen, bestalde, bai Azkuek (4) eta bai Eleizalde (5) askoz lehenagotik agertu zuten aburua.

Baina "H"aren arazoa izan zen 1968ko Kongresoan sesio eta liskar bide nagusia. Azkenik, Kongreso hartan Euskaltzaindiak argi berdea ematen dio euskal ortografia arruntean "H" a erabiltzeari, oraindik xehetasun gehiegitan sartu gabe (6). Horren ondorioz, polemika garratza sortzen da, baina poliki-poliki urte gutiren buruan ikusten da idazlerik gehienek ontzat ematen dutela Euskaltzaindiak gomendatutako bidea. Hala, 1978ko Kongresoan —Bergaran—,

Euskaltzaindiak Arantzazun esandakoa birresten du (7) eta hurrengo urtean, 1979an, alegia, arau konkretuak ematen ditu "H"aren erabilpena zehatz-mehatz legeztatuz (8).

Bigarren urrats hau, hots, "H"aren erabilpenari buruz arau zehatzak ematea, ez zen erraza izan. Hasteko, Iparraldeko euskalkien artean ere ez zen batasunik kontu honetan; alde batetik zegoen Lapurdiko tradizioa, eta, bestetik, Zuberoakoa. Eta gero badirudi azken mendeetan Iparraldeko euskalkietan "H" horien neurritz kanpoko ugalketa bat egon dela tradizio jatorraren kaltetan (9). Nolanahi den, "H" guzti horiek euskara orokorrean onartzea ez zen ez posible eta ez onuragarri ikusten. Beraz, inausketa bat egin behar izan zen. Oroit naiz Hatxetegia, edo "H"dun hitzen zerrenda, bost aldiz egin behar izan zela. Egin, desegin, berregin, alegia.

Inausketa hori egiteko erabili ziren erizpide nagusiak honako hauek izan ziren: 1) Bi tradizioak —hots, Lapurdi eta Zuberoakoa— beren artean bat zetozeneko "H"ak bakarrik atxiki. 2) Kontsonante ondoko "H" guztiak kendu. 3) Bokalen arteko "H" batzuk, azken mendeotan beste kontsonante baten ordeztatuak, kendu eta jatorrizko kontsonante hori berreskuratu. 4) Konposatuetan, lehen hitza silaba batekoa izanik, bada Iparraldean halako joera bat —ez beti, ordea—, lehen eta bigarren silabaren artean lokarri gisa "H" ipintzekoa; joera hori ere ez da kontutan hartu. 5) Etimologia eta usadioaren artean desakordioa denean, usadioari ematen zaio lehentasuna.

Horiek izan dira erizpide nagusiak. Ez da, beraz —batzuek nahi zuten bezala— "H" hartu homonimi kasuetan bereizgarri izan zedin. Tradizioa izan da azken batean, kontutan hartu dena (baina esandako salbuespenekin) (10).

Euskaltzaindiak "H" letraren legeztapen hau 1979an egin zuen. Urte-muga hau uste dut mugari antzo geldituko dela batasunaren kondairan.

Aitor dezagun, haatik, teoriarik ortografi batasuna lortu bada ere, praktikan ez dela hori alde guztiz lortu, oraindik behintzat. Badira "H" a bat ere erabiltzen ez dutenak, badira Euskaltzaindiak erabakitako hitzetatik kanpo ere erabiltzen dutenak, etab. Hala ere orain bada behintzat lege bat eta uste dut poliki-poliki finkatuko dela.

Ortografiari gagozkiola, beste zenbait gauzatan ere nabari dira oraino zalantzak eta desakordioak: hitzak "i", "j" edo "g" rekin idazte orduan, zenbait partikula bereiz edo loturik idazte kontuan, marratxoaren erabiltzean, apostrofoarenean, etab. Baina oro har, ez da dudarik urrats handi bat egin dela hizkuntzaren hedadura guztirako ortografia bat bera legeztatzearekin.

Guk hemen "H"aren istilua ortografi batasunaren auzian tratatu dugu, zeren berez ortografi problema bat baizik ez baita. Gertatzeaz, ordea, gure artean, literatur hizkuntzaren batasunaren auziaz nahasia egon da, eta hasik bateratua.

2) Bigarren problema hau, ordea —literatur hizkuntzaren batasunarena— askoz korapilotsuagoa zen. Esan behar da Euskaltzaindian sortzetik beretik egon dela auzi hau mahai gainean. Hala agiri da Euskaltzaindiaren Sortarauetan, Bilbon, 1920. urtean inprimatutako liburuskari. Eta agiri da, noski, Eusko Ikaskuntzako I Kongresoan, Oñatin 1918an egindakoan. Han lerro lodiz azpimarratu zuen Eleizaldek batasun honen premia; eta Euskaltzaindia sortu baino askoz lehenago Azkuek eta Broussainek elkarri egindako eskutitzetan ere maiz azaltzen da auzi hau (11) —lehenagoko lekukotasunak aipatu gabe—.

Euskaltzaindi sorberriak, hasteko, bi euskaltzaini, hots, Campion eta Broussaini, eritzi bat eskatzen die eta jaun horiek aurkeztutako eritzia argitaratu ematen du (12). Jaun horien eritzia erabat batasunaren aldekoa izan zen eta batasun horretara heltzeko bide batzuk proposatzen dituzte. Hori guti balitz, Euskaltzaindiak eritziak eskatzeko edo/eta giroa sortzeko, Kongresoak eta batzarreak antolatzen ditu Euskal Herriko lurralde desberdinetan (13).

Baina hizkuntza gezurrezko edo artifizial bat aterako ote den beldurra ere agertzen dute batzuek —J. de Urquijo eta R. Menéndez Pidal—; eta zinez esan behar da euskararen

inguman garai hartan gertatzen ziren berrikeria eta gehiegikeriak ikusiz, beldur hori ez zela bat ere ametsetakoa edo ipuinen mundukoa. Gainera, orduko Euskal Herriaren gizarte-egoera ez zen aproposena honelako asmo bat aurrera eramateko. Alde batetik, euskarak ez zuen sarrerarik eskolan, eta, bestetik, euskalduna nekazari-giro batean bizi zen. Egia esan, asmo honi ez zitzaion zabalbiderik ikusten.

Eta hor zegoen, bereziki, euskalki literarioen auzia. Euskalki bat Euskal Herri guztirako onartzea edo sagaratzea, hori zen, itxuraz behintzat, beste euskalki guztiak zapuztea bezala. Euskaltzaindiak ezin egin zezakeen hori. Euskalki berri bat sortu, ordura artekoekin bat ere zer ikusirik izango ez zuena...? Baina hori ere... Euskaltzaindiak ikusi zuen gauza ez zela oraindik asko heldua eta orduko ez zuen erabakirik hartu.

Azkuek, ordea, pertsonalki "gipuzkera osotua" delakoa bataiatu eta landu zuen, bai teorian eta bai praktikan ere (14). Bide honek izan ditu, Azkuez gainera, jarraitzaile batzuk (Olabide, Zaitegi, Andima...).

Baina ez arrakasta handiegirik, halere. Eta horren arrazoia, besteak beste, honako hau dela dirudi: euskaldunak beren lurralde historikoari oso atxikiak direla. Orduan, "gipuzkera" entzuten dutenean, beste lurraldeetakoek bizkarra jaso eta esaten dute: "Gipuzkera baldin bada, berek erabil dezatela". Eta nahiz eta izenari eraskin hori jartzen zaion "osotua", horri ez diote gehienetan kasu handirik egiten, ez gipuzkoarrek, ez besteek.

Hirurogeigarreneko hamarkadan, ordea, Euskal Herriak, soziologi aldaketa handia jasaten du, nekazari girotik, hiri eta industri girora aldaketa. Orduan sortzen da, gainera, ikastola, sortzen da euskal irakasle titulua, sortzen dira alfabetatze ikastaroak. Giro berri honen ondorioz behin eta berriz eskatzen zaio Euskaltzaindiari luzaezin bihurtu den auzi honi eman diezaiola noizbait ihardespen bat.

Giro berri honetan biltzen da Arantzazun lehen aipatutako 1968ko Kongresoa, Euskaltzaindia sortu zeneko urte ezteiak ospatzeko. Eta biltzen da gai monografiko honekin, hots: euskararen batasuna. Gabriel Aresti izan zen gai honetaz berariazko Kongreso bat egin zedila eskatu zuena, eta eske hori onartua izan zen. Orduan Euskaltzaindiak L. Mitxelena euskaltzainari egozten dio aurre asmo bezalako bat taxutzeko ardura. Eta Mitxelenak hori azaldu zuen Arantzazun (15).

Aurre asmo honetan ez da euskalki jakin bat oinarritzat hartzen. Bada hizkuntzan muin bat guztiona dena eta muin hori hartu nahi da oinarri. Guztiok bat ez datozen gauzetan, berriz, zahar eta jatorrari ematen zaio lehenatasuna, gaur ere Euskal Herriko parte dexente batean bizi bada behintzat. "H"aren arazoa, esate baterako, lege honen ondorio besterik ez da.

Jakina, galdera bat sortzen da hemen hitzetik hortzera: Lehendik abian zegoen gipuzkera osotua eta oraingo asmo berri hau, hain urrun daude bata bestetik? Mitxelena berak esan du ezetz, oso hurbil daudela elkarrengandik; beharbada oraingo asmo hau eguzki aldera eta denboran iraganera abiatuago dela, eta hori bai, "H" letrari sarrera eman diola (16).

Eta hemen ohar garrantzitsu bat egin behar da: euskararen batasuna egitea posible gertatu da, euskarak berez ere, bere baitan, alegia, batasuna duelako. Euskara hizkuntza bat da eta ez hizkuntza asko. Bere baitako batasun horrek hizkuntzaren egitura nagusietan distirutzen du. Euskararen enborretik geroago, beranduago, ilki dira euskalkiak, baina horiek zerbait gaitetiko eta axaleko dira, eta, zernahi gisaz, ez dute jatorrizko batasuna deuseztatzen, pixka bat estaltzen badute ere.

3) 1968ko Kongresoan batasunaren aurre-asmoari argi berdea eman ondoren, Euskaltzaindia ez zen geldirik egon. Ortografiaraz landara, lanean hasi zen Hiztegi eta Morfologiako zenbait puntutan arau gidariak ematen. Hiztegiari dagokionez, esate baterako, hitz desberdinen artean eta hitz beraren aldaeren artean zein hobetsi behar zen jakiteko zerrenda argitaratu zuen; adibidez "bezala", eta ez "bezela" (17), etab.

Gero Euskaltzaindiak batzorde berezi bat jarri zuen aditzaren batasuna egin ote zitekeen aztertzeko eta egin zitekeela uste baldin bazuen, egiteko. Urrats handia zen hau (18).

Batzorde honek bi zatitan burutu zuen bere lana. Lehenik, *Aditz laguntzaile batua* (19). Eta gero *Aditz sintetikoa* (20).

Bitxia bada ere, urrats hau hain handia izanik, ez zuen kasik abarrotsik sortu. "H"aren polemikak bereganatu zituen iskanbila guztiak. Hemen zenbaitek galde lezake ea nolako erizpideekin egin zen aditz-batasuna. Aditz laguntzaileari dagokionez, euskalki bakoitzak bere sistema berezia duela, ez zen posible handik zati bat eta hemendik beste bat hartzen ibiltzea; xehetasun batzuk gora behera, gehienetan Gipuzkoakoa hartu dela agerian dago. Aditz trinkoetan agian aukera gehiago egon da. Esate baterako, *Eritzi* aditzaren erabilpena aztertu zenean, hemen bizkaierak gordetzen zuela aditz horren errejimena jatorra esan zen eta beroni eman zitzaioan arrazoia.

Deklinabide batuari buruz 1968ko Kongresoan egin zen aurre lan bat (21), baina batez ere Bergarakoaren ondoren finkatu zen (22). Egia esan, *Deklinabidearen batasun* hori egiteko, ez zen halako oztopo handirik egon. Mugagabeko deklinabideari eman zaio arreta berariazkoa, pluraleko nominatiboan bi forma onartu dira ("-ak" eta "-ek") Iparraldekoen tradizioari segituz, datibo pluralerako "-ei" forma hartu da; kasu instrumentala, Hegoaldean pixka bat gutietsia izan duguna, ohoretan jarria izan da; baina, jakina, batzutan gehiegizko erreakzioz edo, hobeki esan, gauza ondo ez ulertuz, behar ez den lekuetan erabilia ere ikusten da gaur: "igandez", "igandean" behar zen lekuan, etab.

Erakusle edo *demonstratiboen batasuna* ere Bergarako Kongresoaren ondoren egin zen (23). Orduan erabakitzen da, baita ere, bustidurak ez idaztea esanahiaren aldakuntzarik adierazten ez dutenean (Ikus supra nota 3).

Ikusten denez, urteotan egin den bidea ez da hutsaren parekoa izan. Batzuek aurpegira botatzen diote orain Euskaltzaindiari erabakiak emate kontuan azken urteotan moteldu egin dela. Baina hemen galde daiteke: Lehen emanak ez ditugu oraindik ongi ikasi edo asimilatu, eta berrien eske? Gainera, zenbait alorretan erabakiak hartzeko egin behar liratekeen ikerketak egin gabe daude oraindik. Hori gertatzen da, esate baterako, euskal azentuaren auzian.

Esan dezagun hitzerdi bat *euskara batua eta euskalkien arteko tirabiraz* ere. Euskaltzaindiak emanak ditu agiriak gai honi buruz (24). Euskaltzaindiak nahi du, noski, euskara batua bultzatu, baina horrek ez du esan nahi euskalkiak lantzearen kontra dagoenik. Zenbait idaz motetarako —adibidez, sorketa-literaturarako— egokiagoak izan daitezke gaurkoz euskalkiak; hizkera aseptiko eta estandar horretarako, aldiz, euskara batua. Dena dela, noiz erabili bata eta noiz bestea, hori ez da erraz mugatzekoa. Euskalkia irakastearen kontra ere ez dago Euskaltzaindia, noiz eta baztertzeko ez den batua.

Euskaltzaindia euskara batua eraikitzean ez da hutsetik abiatu; lehenagotik ere bazen zerbait, hots, literatura bat euskalkitan banatua, baziren liburu batzuk, eta nahi-eta-ez, kontutan hartu behar zituen. Horiek dira euskararen autoritateak. Euskaltzaindia euskalkien etsai bihurtu dela esatea gezurra esatea da, bada. Baina, hori bai, euskalkiak hizkuntza independente batzuk bihurtzearen kontra dago Euskaltzaindia.

Aipa dezagun, azkenik, euskara batuaren beste bereizgarri bat: hizkuntza idatzia dela berau, oroz gain eta batez ere. Azpian, ordea, eta zorionean, badu aho hizkuntza bizia. Hortik halako desoreka bat sor daiteke: alde batetik doa soziologi pisua eta bestetik literatura tradizioarena. Baina hori ez da kaltegarri, aberasgarri baizik.

Honelako hizkuntza batean badira —eta komeni da egin daitezen— hizkuntz-nibelak edo mailak ere. Bi hauek batipat: maila klasikoa eta maila arrunta. Gure artean maila klasikoak joera du hitzak etab. Lapurdiko tradizio zaharretik hartzera; besteak, berriz, egunoroko harrobitik (25).

2. Euskaltzaindiak une honetan esku artean dituen lanak

Zein dira Euskaltzaindiak egungo egunean esku artean dituen lanik handienak? Bi hauek, dudarik gabe, Gramatika eta Hiztegia. Esan dezagun zerbait bioi buruz.

1) *Gramatika*. Azkuek bere Morfologiaren hitzaurrean hara zer dioen:

"Apenas creada la Academia de Lengua Vasca, los que de ella tenemos el honor de formar parte venimos oyendo repetidamente: ¿Cuándo nos darán Vds. un Compendio de Gramática Vasca? - Una obra así, en resumen, presupone la existencia de una ya completa en lo posible. Solo a fotógrafos les es dado ampliar una obra pequeña" (26).

Euskaltzaindiak gerra ondoko garaian 1980. urtean jarri zuen Gramatika-Batzordea, Hondarribian egindako batzarre batean, buru Lafitte zela, buruorde Haritschelhar, Idazkari Goenaga eta Idazkari orde M.^a Pilar Lasarte (27). Batzorde hau lanean hasi zen, pixka bat haztamuka. Ordura arte baziren euskal Gramatikak, baina euskalki baten gainean taxutuak beti ere. Orain guztion euskararen Gramatika nahi eta behar zen. Nola egin, ordea? Ameskeria zirudien. Batzordea gogotik lotu zitzaion lanari, eta horra ametsa egia bihurtua: Iruñeko Kongresoan, 1984ean, *Eglu 1 (Euskal Gramatika. Lehen urratsak, 1)* aurkeztua, aztertua eta onartua izan zen. Baita berehala argitara emana ere (28) eta arrakasta ezin hobea izan du. *Eglu 2* ere aurten Arraten aurkeztua izan zen eta aurki argitaratuko da. Eta oraindik *Eglu 3* ere beharko da prestatu (perpau konposatua). Gramatika honekin zerbitzu ikaragarria egiten zaiola euskarari uste dugu. Irakasle, idazle eta abarrek badute nora jo.

2) *Hiztegia*. Jakina denez, Azkuek bere Hiztegi handia 1905-1906. urteetan atera zuen. Ona eta bikaina izan arren, urteak joan eta urteak etorri, motx eta eskas gelditu da. Izango dira 30 eta gehiago urte Euskaltzaindiak Mitxelena jaunari hiztegi hori berritzeko ardura egotzi ziola. Mitxelena, ordea, laster konturatu zen lan berria egin behar zela, informazio zabalagoa emango zuen hiztegi bat, alegia, eta langintza horretan pertsona bakar baten indarrak gaindituak gelditzen zirela. 1984. urtean Jaurlaritza eta Diputazioek lan honi laguntzea erabakitzen dute (29). *Diccionario General Vasco* edo *Orotariko euskal hiztegia* da beronen izena. Mitxelena eta Ibon Sarasolaren ardurapean eta Informatika tresneriaren laguntzaz egina izango da.

Hiztegi honen beharra agiri-agirian dago. Euskal mundua iratxoz beterik dugu. Orduan hitzen sinestamenduak emango dizkigun hiztegi zabal bat behar-beharrezkoa zaigu. Zortziren bat tomo izango omen ditu Hiztegi honek eta lehen liburukiak aurki kaleratuko direla uste dugu.

Baina Hiztegi handi honekin ez dira erremediatzen euskarak alor honetan dituen eskasiak.

Hiztegitza-batzordea 1981 eta hurrengo urteetan tankeratzen da Mitxelena buru, I. Sarasola buruorde, M. Zalbide idazkari eta R. Badiola idazkari orde direlarik (30). Beronen asmoen artean da *Hiztegi hiritartua* deitzen dena egituratzea ere, hots, gaur eguneko gizartearen euskarak behar dituen hitzez osatua egongo den hiztegia (31).

Behar-beharrezkotzat jotzen dugu hiztegi hiritartu honen taxutzea. Hainbeste hitz daude gaur eguneko hizkuntzan ezinbesteko direnak eta jendeak euskaraz nola esan ez dakienak: orduan, jakina, joera du horiek gaztelaniatik zuzenean hartzera. Hala entzuten dira Telebistan bertan: *pestizida, konfusio, represalia*, etab.

Hiztegi hau burutzeko, ordea, beharrezko da *Diccionario General Vasco* delakoa eginik egotea, eta baita azkenaldi honetan agertu diren eta hainbeste liburu eta aldizkaritan barreiatuak diren hitz berrien bilduma egitea ere. Lan hau martxan dago, baina, jakina, bere denbora eskatzen du.

Ibon Sarasola arau emaile gisako hiztegia prestatzen dabil, osoki euskaraz taxutua. Orain arte bi liburuki atera dira (*A-Aurten, Aurtiki-Ebaki*). (32).

Hitzen kontuan problema latzak izan dituela euskarak ez da ez dakienik, batez ere neurritz kanpoko purismoagatik. Hori dela eta, *zein den euskal hitza* argitzeko asmoz, Agiri bat eman zuen Euskaltzaindiak 1959. urtean (33). Geroztik badirudi urek beste muturrera jo dutela, hitzak beharrik gabe eta nolana ere erdaratik hartzera, hots, zabarkeriara, eta hori ere, jakina, ez da Euskaltzaindiak nahi duen bidea.

Autonomiarekin *lexiko-berrikuntzaren beharra* etorri zaio euskarari. Lehenago euskaraz sekulan adierazten ez ziren hainbeste gauza, orain nahi-eta-ez nola esan behar diren erabaki beharra ikusten da, baina gauza hauek ez dira itsumustuan egitekoak. Premia honi erantzun ematen laguntzeko, Euskaltzaindiak jarri du *Lexikologi Erizpideak Finkatzeko* taldea, Hiztegi-batzordearen barnean lanean ari dena.

Hitz berrien premian da euskara, eskakizun berriei erantzuteko. Horretarako hiru bide ditu: 1) Hitzak mailegatzea, 2) Hitz-elkarketa bidez hitz berriak sortzea, 3) Eratorpen edo deribazio-bidez hitzok sortzea. Aipatu talde honen zeregina da hiru bide horiek aztertzea eta Euskaltzaindiari hartako proposamenak aurkeztea, gero honek, hala baderitzo, erabaki ditzan.

Lehen bideari buruz 1984 eta 1985. urteetan hartu zituen Euskaltzaindiak bere erabakiak eta argitaraturik daude (34). Mailegatzen diren hitz berrien ortografia eta itxurari buruz dira erabakiok.

Ondoren bigarren bideari, hots, hitz-elkarketari lotu da Euskaltzaindia, baina oraindik arazoa ikerketa-fasean da. Lexikologi Erizpideen Finkapenerako taldeak aterea du jadanik lehen koadernoan (35). Hitz-elkarketarena bururaten denean, eratorpenak izango du txanda.

Dena txosten motx batean esaterik ez dago, baina aipa dezagun —aipatu baino ez bada ere— *Euskal Herriko Atlas*: horra beste lan handi bat lehenbiziko aldiz egungo tresneria eta eskakizunekin burutuko dena (36). Egia da Euskaltzaindiaren lehen urteetan, eta Azkuek eraginik, burutu zela Atlas moduko beste lan bat, *Erizkizundi Irukoitza* izenez ezagutua; baina hau ere azken urteok arte ez da behar bezala agertu (37). Oraingoa, berriz, martxan dago Jaurlaritzaren laguntzari esker; Jean Haritschelhar jaun euskaltzainburuordeak du goi-gidaritza. Jaun honen ardurapean ari da lan-taldea.

Frankismoaren denboran eta transizioan lehen urteetan behar zen batez ere euskal kontzientziaren sua mantendu eta bultzatu, eta horretarako Euskaltzaindiak bertsolarien *txapelketak*, olerki-elaberri eta antzerki *sariketak* antolatu, autore zaharren *mendeurrenak* ospatu etab. egiten zuen. Baita euskarari buruzko *Biltzar agiriak*, hau da, jende aurreko Kongresoak muntatu ere (38).

Askotariko lanak egin dira garai horretan; eta ez dira gutxi euskararen normalkuntzaz zer ikusi dutenak. Hona hemen batzuk: *Merkatalgo izendegia* (39), *Euskal izendegia*, hau da, pertsona izenena (40), *Euskal Herriko Udalen izendegia* (41), *Hilabeteen izenen batasuna* (42). Euskal *azentuari buruz* bi Jardunaldi egin ditu Euskaltzaindiak: bata Azkoitian 1982. urtean eta bestea Durangon 1986.ean. Euskal *toponimiaz* bat Gasteizen 1986an. Hiru liburu-sail sortu ditu, hots, "Iker", "Jagon" eta "Onomasticon Vasconiae".

1982an Euskal Idazleen Elkarteak sortzen lagundu zuen.

Urrats handia izan zen, baita ere, *euskal irakasle tituluaren* sorrera (1972an) (43).

Euskaraganako kontzientzia bultzatu nahiz *Euskararen Liburu Zuria* (44) eta *Estudio Sociolingüístico del euskara*, Siadecoren laguntzaz burutuak, eta berorien laburpena den *Conflicto lingüístico en Euskadi*, argitara zituen.

Alde honetatik gogoangarri dira "Bai euskarari kanpaina" (1978) (45) eta Euskalarien Nazioarteko Jardunak (1980) (46).

Aparteko modu batean azpimarratzekoa da "Euskara eta Euskararen Lekukoak" liburu-bildumaren sorrera. Euskaltzaindiak 1978an liburu-bilduma hau sortzen du, hizkuntza aztertu eta sakonki ezagutzeko iturri izan daitezkeen liburuen edizio kritikoak bertan argitaratzeko. 13 liburu argitaratu dira gaur arte (47). Eta "Lekukoak" bilduma horren begira egon gabe ere, aitzinagotik salbuespen bat egin zuen Euskaltzaindiak euskal liburu eta autoreen artean

nolabait printze eta txapeldun gertatu den Axularren *Gerorekin*: liburu horren bi edizio atera baitzituen, bata 1954ean, eta bestea 1964ean —hau erdal itzulpen eta guzti Barcelonako Juan Flors editorearen etxean—.

Eta hor da, azkenik, *Eusker*a, Euskaltzaindiaren aldizkaria, ia 50 urte edo tomatoko kopurua osatzen duena.

3. Kezkaturik egoteko motiboak

Bai. Ez da dudarik. Lana egin da gogotik. Eta askotan eskuartekoak oso murrizak zirelarik.

Haatik, kezkaturik egoteko motiboak ez dira falta. Aipa ditzagun bat edo beste.

Euskaldunberrien kontua asko ugaritu da, eta hori berez on da hizkuntzarentzat. Baina euskaldunberria edo euskaldun zaharra izan, hiztuna, hizkuntz-komunitatean txertaturik ez badago, axaletik edo erdizka euskaldun izatea gerta daitekeena da. Eta diotenez, gaur lanpostua bilatzea zaila delako edo, honelako asko sarturik da irakaskuntzan. Orduan zer gertatzen da, zenbait aldiz bederen? Ikastola eta familiaren artean eten bat sortzen dela. Haurrak sinesturik daude irakasle eta andereñoek beren gurasoek baino euskara gehiago dakitela, eta hori ez izan egia, hizkuntzaren giharrari ukitzen dizkioten gauzetan behintzat. Gurasoak gehienetan murgilduago egon ohi dira hizkuntz-komunitatean, irakasleak baino. Ez da ahantzi behar hizkuntza bat menderatzeko ez dela aski gramatika eta hiztegiak. Jakin behar dira hizkuntzaren itzulika, esaera, modismoak etab., eta hori komunitatean murgildurik denak bakarrik ikasten du.

Gaur, segur, euskarak duen arriskurik handiena honako hau da: hizkuntz-komunitatea bakanduz, mehartuz joatea, eta azkenean urtua, hutseratua, desegina gelditzea. Hizkuntza batentzat noraezekoa da hizkuntz-komunitate trinko baten jabe izatea; hori gabe ez dago hizkuntzarik; hizkuntza bizirik ez behintzat. Alferrik aterako dira liburuak, alferrik irtengo dira Euskal Filologian graduatuak direnak. Azukarra uretan bezala, euskararen hizkuntz-komunitatea urtzen eta desegiten bada, euskara, hizkuntza bizia den aldetik galdua izango da, hila, nahiz eta taldetxo batzuk euskara lantzen jarraitu.

Elebitasun edo bilinguismoa dela euskararen irtenbidea entzun ohi da, eta nik ez diot hori egia ez denik, baina kasu! engainu handiak egon daitezke hemen. Bilinguismo hitz horren azpian hainbeste gauza zeharo desberdin sar daitezke eta sartzen dira, denak zaku berean! "Txepetx" jauna uste dut izan dela gure artean gai hau gehien sakondu duena, eta nolako gauzak ez ditu esaten! *Sasi-elebidun*, *elebidun desorekatuak*, "trampa sibilina", *diglosia*, etab. Jaun horren hitzekin esateko, *hiztun osoak*, horra euskarak behar dituenak, ez erdizkakoak, eta hori gabe ez dugu ezer egingo (48).

Baina hemen Euskaltzaindiak bere ahalmenekin ezer guti egin dezakeen alorrean sartzen gara. Gehiago esango nuke: gobernuak berak eta agintariak berek ere guti egin dezaketen alorrean. Herriak zinez eta benetan nahi dezala eta hartarako bideak ez dakizkiola herts: horra behar dena. Bai. Auzi honetan herriak berak, eta ez bestek, izango du azken hitza.

Euskaltzaindiari zuzenean dagokiona zera da: hizkuntzak behar duen azpiegitura hori prestatzea, tresna bera egokitzea, alegia. Eta horretan ari da, noski.

Eta esan beharrik al dago? Literatura behar da bultzatu. *Literatura* hitza bere esanahi zabalenean hartzen dugu. Nahi badugu euskara egungo gizonaren beharkizun eta eskakizunetarako mintzabide, ibilgailu eta tresna egoki bihurtu, ohartzen ote gara zer-nolazko eginbeharrak datozkigun burugainera?

Zilegi izan bekigu bestetan ere inoiz aipatu dugun puntu bat errepikatzea: *prosaren normalakuntza* egin beharra. Hitzetan bezala, syntaxian ere, gehiegizko purismo baten ondorioz, triskantzak egin dira gure artean, hizkuntza bera katigatua uzteraino, besoz eta

zangoz lotua uzteraino. Gure idazle zaharrek Europako hizkuntza landu guztien errepede beretik jo zuten; zoritxarrez gero bide hori alde batera utzi zen, baina beharko dugu berreskuratu —behar diren egokitzapenak eginez, noski—.

Eta prosaren auziaz batera hor dago *itzulpenarena* ere. Horra beste zeregin handi bat, gaur noraezekoa dena eta euskarak normalizatu gabe duena. Oroit naiz nola, Euskaltzaindiaren izenean, hemen Donostian 1980. urtean *Itzultzaile Eskolaren* zabaltzea egin nuen (49). Euskararentzat hil edo biziko kontua da hau ere.

4. Tentaldiak (*horietan erortzetik begira gaitezen*)

Eta bukatzeko, tentaldi bat edo beste, hurbil dakizkigukeen tentaldiak, aipatuko ditut, aipatu bakarrik, horietan erortzetik begira gaitezen.

Bat, *inposaketaren* tentaldia. "Txepetx" jaunak gogoratu digunez, ebanjelioko erasia hura "Ez zazula besteri egin zeuretzat nahiko ez zenuena" ez da soilki agindu moral bat, zuhurtziaz beterikako esana ere bada, politika alorrean ere balio duena (50).

Euskaldunak % 25 omen dira Euskadi deitzen dugun lurralde honetan (51). Orduan zein da bidea? Ez dakit, baina ene ustez hau: bi hizkuntzok errespetatu, bien hiztunen eskubideak kontu handiz zaindu, eta bi hizkuntzon ezagupena orotara zabaldu.

Agian gure auzi honen planteamendua pixka bat hobetu beharko genuke. Ez dugu ahantzi behar orain dela bi mila urte edo gehiago gertakari handi bat gertatu zela: *erromatarkuntza* edo erromanizazioa, eta guk nahi-ez-nahi, horrek ondorio larriak izan dituela guretzat ere. Gure herriaren zati handi bat erromatartu egin zen eta gero bere erromantzeak sortu zituen; beste zati batek euskaraz hitz egiten jarraitu zuen, nahiz eta euskara horretan ere latinaren markak ugari eta sakonak izan.

Hau da gure egoera bi mila urtetatik honantz. Oroit naiz Euskaltzaindiko batzarre batean behin gertatuaz. Jaun jakintsu bati hitz hauek jaulki zitzaizkion: "Erdara ere hemengoa da, gero!" Inork ez zuen txintik erantzun. Eta oroit naiz halaber D. Juan Gorostiaga euskaltzainari Bilbon egindako batzarre batean entzun nionaz. Hitzez hitz ez bada ere, mamiz hauxe esan zuen: "Ez dugu sekula euskararen historia, bi mila urtetik honanzkoa behintzat, ongi ulertuko, kontutan hartzen ez badugu gauza bat, eta da: euskarak beti eduki izan duela bere ondoan, etxelagun bezala, erromantzea (eta lehenago latina, noski)". Hori bera uste dut ateratzen dela Mari Tere Etxenikeren liburutik ere (52).

Katalanek, adibidez, hizkuntza propiotzat jotzen dutena, zer da? Erromatarkuntzaren ondorioz han sortutako erromantze bat. Ba fenomeno hori bera hemen ere eman da. Diferentzia batekin, ordea: hemen hizkuntza zaharrak jarraitu egin zuela, baina latina eta gero erromantzea aldamenean eta are etxe barnean zituela.

Ez dagoela elebidun den herririk esan izan da. Ez dakit. Euskadi hau behintzat horrelakoa da. Beharko da formula bat bilatu bi hizkuntzen arteko elkar bizitzea gure artean posible izan dadin, ez orain arteko baldintzapenekin, noski, euskara ere bestearen parean ahal dela jarririk baizik.

Eta beste tentaldi bat oraino gaintitu beharra duguna: euskararen auzia aukera politiko jakin batekin lotzea. Euskara herri baten ondasuna da, guztiona beraz, eta ahaleginak egin behar ditugu guztiek ondasun hau aintzat har dezaten. Aukera politiko jakin batekin uztartzen denean, aldiz, besteak, erakarri beharrean, aldendu eta uxatu egiten dira.

Eta gure artean sortu eta erroak bota dituen hilketa oldarraldia ez da, noski, girorik aproposena problema hauei atarramentu on bat emateko. Zuzentasunezko, bakezko eta elkar maitasunezko irtenbide bat emateko, alegia. Gizon baldin bagara, ordea, hori behar dugu: zuzentasun, bake eta maitasunean oinarritutako irtenbide bat bilatu. Lotsagarri ere bada guretzat gaitz honi erremedio ipintze orduan bat ez etortzea, jakinik giza-odola dela tartean.

Ez dezagula gauza bat ahaztu: planteamendu txarrek ondorio txarretara, eta are hondamendira, eraman gaitzaketela.

Maitasun itsu batek ez diezagula ikusbide zuzena galeraz.

"Txikiak andia benzi leidi asmoz eta jakitez", dio Bizkaiko esaera zaharrak.

Oharrak

1. "Real Decreto de reconocimiento de la Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia", *Euskera* (1976), 5.
2. Ikus *Euskera* I (1920), 1 zenbakia, 64.
3. "Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren Agiria", *Euskera* (1979), 91.
4. AZKUE: *Ardi Galdua*, Bilbon 1918, 6. orr., 5. oharrean.
5. ELEIZALDE (LUIS): "Metodología para la restauración del Euzkera" en *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao 1919; p. 428 ss.
6. "Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren Agiria", *Euskera* (1968), 250.
7. Ikus Bergarako Biltzarraren Adierazpena, *Euskera* (1978), 866. orr.
8. "H letraren ortografi arauak" *Euskera* (1979), 659. orr.
9. Ikus, adibidez, Lhanderen Hiztegia *soho*, soro edo sorhoren ordez.
10. VILLASANTE: *La H en la Ortografía Vasca. Razones y motivos. Reglas. Catálogo de voces con comentario*. Aránzazu, 1980.
11. *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarrizketa*; Iker 4, Euskaltzaindia, Bilbo 1986.
12. "Informe de los señores académicos A. Campián y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera", *Euskera* (1922), 1 zenbakia, 4 (Liburuska bezala ere agertu zen).
13. Ikus batzaldi horietan irakurritako txosten edo ikerpenak *Euskera*-n (1922), 1 zenbakia, 58 eta segidako orrialdeetan.
14. AZKUE: "Gipuzkera Osotua", *Euskera* (1934), X-159; (1935), 151-184. orr.
15. MITXELENA (L.): "Ortografía" *Euskera* (1968), 203. orr.
16. Ikus Mitxelenaren hitzaurrea Villasanteren *La H en la Ortografía vasca* liburuari; 7. orr.
17. "Batasunerako hiztegia", *Euskera* (1968), 251. orr.
18. "Aditz batzordea", *Euskera* (1971), 130. orr.
19. "Aditz laguntzaile batua" *Euskera* (1973), 5. orr.; ALTUNA (PATXI) "Aditz laguntzaile batuaren gorabeherak" *Euskera* (1977), 667. orr.
20. "Aditz sintetikoa", *Euskera* (1977), 785. orr.
21. GARMENDIA (S.): "Deklinazio" *Euskera* (1968), 151. orr.
22. "Deklinabidea", *Euskera* (1979), 633. orr.
23. "Erakusleak", *Euskera* (1979), 629. orr.
24. "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak", *Euskera* (1979), 101. orr. — "Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan", *Euskera* (1979), 697. orr.
25. IBON SARASOLA: *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, lehen liburukia, 34. orr.
26. AZKUE: *Morfología Vasca*, Prólogo, p. V.
27. "Euskaltzaindiaren Agiria", *Euskera* (1981), 127. orr. Orduetik hona batzorde hau gehitu egin dela esan beharrik ez dago.
28. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*, 1985.
29. VILLASANTE: "Mitxelenaren Hiztegia egiteko akordioa sinatu zen egunean", *Euskera* (1984), 897. orr.
30. Ikus *Euskera* (1983), 575. orr.
31. "Euskaltzaindiaren Adierazpenak. I Hiztegi-gintza", *Euskera* (1982), 271. orr.
32. SARASOLA (IBON): *Hauta-lanerako euskal Hiztegia*, CAP, Donostia.
33. "Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz", *Euskera* (1959), 214. orr.
34. *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak*, 1986.
35. *Hitz-elkarketa* 1, 1987.
36. Ikus "Atlasgintza", *Euskera* (1986), 375. orr.
37. *Erizkizundi Irukoitza*. Ana Mari Echaide Itartek paratua, Euskaltzaindia, Iker 3, Bilbo 1984.
38. Beste ospakizunez aparte, Euskaltzaindiak frankismoaren denboran euskarari buruz antolatutako Biltzar agiriak zazpi izan ziren. Lehenbizikoa 1956. urtean Arantzazun; bigarrena 1958.ean Bilbon; hirugarrena 1959.ean Eibarren; laugarrena 1961.ean Donostian; boskarrena 1963.ean Arantzazun; seigarrena 1964.ean Loiolan; zazpigarrena 1968.ean Arantzazun.
39. Pamplona, 1974.

40. Pamplona, 1977.
41. Bilbao, 1979.
42. Ikus *Euskera* (1971), 103.
43. Ikus *Euskera* (1972), 220. orr.; (1976), 283. orr.
44. *El Libro Blanco del euskera; Euskararen Liburu Zuria*, Bilbao 1977.
45. Ikus *Euskera* (1978), 365. orr.
46. Ikus Euskaltzaindiko "Iker" sailaren lehen liburukia.
47. "Euskaltzaindiaren Agiria: Euskara eta euskal Literaturaren Lekukoak liburu bilduma sortzeaz", *Euskera* (1978), 343.
48. SANCHEZ CARRION (J. M.^a): "Bilingüismo, Diglosia, Contacto de Lenguas" ASJU VII (1974), 3-81. orr.; ID., *El espacio bilingüe*, Eusko Ikaskuntza, 1981.— ID. *Un futuro para nuestro pasado*, San Sebastián 1987.
49. "Itzultzaile Eskola zabaltzean", *Euskera* (1981), 147. orr.
50. *Un futuro para nuestro pasado*, p. 283.
51. *Euskadi diot*, ezen *Euskal Herri* hitzak "petitio principii" batera eramango baikinduzke. Bereizpen batzuk egin behar direnerako Euskadi hitzak baditu, bai, bere abantailak.
52. M.^a TERESA ECHENIQUE: *Historia lingüística vasco-románica. Intento de aproximación*, San Sebastián 1984; OMAECHEVARRIA (IGNACIO): "Vascuence y Romance", *Euskera* (1986), 177. orr.